

## 83. FITXA GIPUZKOA - Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa bideetarako laguntzak

**Norentzat:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa-bideen titularrak diren edo gutxienez bide horien erabilera publikoa egiazta dezaketen udalerriak eta toki-erakunde txikiak.

**Sarbide-esteka:** [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

**Erreferentziako araudia:** [Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa bideetarako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia](#)

**Eremuak:** Landa azpiegiturak

**Zenbatekoa:** 1.300.000 €

**Eskabideak aurkezteko epea:** 2025/03/12

### Laburpena

Laguntza hauen xedea da landa ingurunean bizi direnen kalitatea hobetzea eta lehenengo sektorearen garapena sustatzea, **hainbat zerbitzu eskura ditzaten**, erabiltzaileentzako **irisgarritasuna eta oro har garraioa hobetuz** eta **nekazaritza-azalerak hobeto ustiatzeko** aukera emanez.

### Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- Landa bide berriak egitea, lehenengo asfaltatzea edo hormigonatzea.
- Nekazaritza ustiategietara doazen landa bideak konpontzea, egokitzea eta hobetzea.
- Landa bideak eta nekazaritza-ustiategietarako sarrerak seinaleztatzea.

Diruz lagundu daitezke landa bideak eraiki, egokitu, konpondu, hobetu eta seinaleztatzeko lanen kostuak.

**Entitate bakoitzak eskaera bakarra** egingo du, eta bertan sartuko ditu laguntzeko eskatutako bideak. **Deialdi bakoitzera bost proiektu** aurkeztuko dira **gehienez**.

## Gastuetarako aldi hautagarria

Orokorrean, diruz lagundu ahal izango dira **laguntza deialdiaren urteko urtarrilaren 1etik aurrera** landa-bideetan egindako inbertsioak. Dena dela, aurreko urtean egindakoak ere lagundu ahal izango dira, hiru kasu hauetan:

1. Urte horretan ez bazen deialdirik egin edo, kasua bada, egindakoa bertan behera utzi bazen.
2. Urte horretako deialdian dagokion biderako laguntza-eskaera aurkeztu bazen eta dirulaguntza jaso gabe geratu bazen, aurrekontu baliabideen faltagatik.

Aurreko 1 eta 2 kasuetako proiektuak dituzten eskatzaileek eskaera berri bat egin beharko dute deialdi berrian parte hartu nahi izan ezker.

3. Aurreko urteko deialdiko eskaeren aurkezpen epea amaitu ondoren gertatutako aparteko euriteek edo beste hondamendi naturalek bidean eragindako egiturazko kalteak konpontzeko kasuetan, konponketa horiek premiazkoak zirenean erabiltzaileentzako arriskua zegoelako.

## Laguntzen zenbatekoa

Diruz lagunduko diren proiektuetarako ezartzen den gutxieneko inbertsioa (aurrekontua) **4.000 euro** da.

Entitate eskatzaile bakoitzari **35.000 euro** emango zaizkio gehienez deialdi bakoitzeko. Dirulaguntza zuzena izango da, egindako inbertsioen arabera, kontuan hartuta portzentaje hauek, biztanleria kopurua eta jarduketara mota:

	< 1.000 (%)	1.000-2.500 (%)	2.500-10.000 (%)	> 10.000 (%)
Landa bide berriak egitea, lehenengo asfaltatzea edo hormigonatzea.	85	80	65	55
Nekazaritza ustiatagietarako landa bideak konpontzea, egokitzea eta hobetzea.	75	65	55	45
Landa bideen eta nekazaritza ustiatagien sarreren seinaleztapena.	65	55	45	35